

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK ETA ETXEBIZITZA

PARTE HARTZEKO PROZESUA



AURKIBIDEA

01

SARRERA

02

PARTE
HARTZEKO
PROZESUAREN
HELBURUAK

03

METODOLOGIA

04

GALDETEGIA

05

EMAITZAK
DATUAK ETA
BALORAZIOAK

06

PARTE
HARTZEKO
TAILERRA

07

ONDORIOAK

01

SARRERA



Etxebizitza duin, egoki eta irisgarria edukitzeko eskubidea funtsezko premisa bat da bizitza independentearen eremuan oinarritutako bizi-proiektu bat diseinatu, proiektatu eta garatzeko.

Etxebizitza duin, egoki eta irisgarria edukitzeko eskubidea funtsezko premisa bat da bizitza independentearen eremuan oinarritutako bizi-proiektu bat diseinatu, proiektatu eta garatzeko. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak berak ezartzen duenez, «*Estatu alderdiek aitortzen dute pertsona desgaituen eskubidea, euren eta euren familiek bizitza-maila egokia izateko, horretara biltzen direla elikadura, jantzi eta etxebizitza egokiak, eta euren bizitza-baldintzak etengabe hobetzeko; halaber, neurri egokiak hartuko dituzte, eskubide horren egikaritzea babestu eta sustatzeko desgaitasun-arrazoien ondoriozko bereizkeriarik gabe*» (28.1 art.).

Era berean, Konbentzioak berak, 19. artikuluan, zeinak desgaitasuna duten pertsonen modu independentean bizitzeko eta komunitatearen barruan egoteko eskubidea aitortzen dien, modu independentean bizitzeko eskubidea eta etxebizitza-eskubidea hertsiki lotzen ditu, bigarrena lehenengoa gauzatzeko funtsezko elementutzat hartuta, honako eskubide hauek aitortuz: «*Desgaitasuna duten Pertsonak aukeratu ahal izatea euren bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duten, gainerako baldintza berberetan, eta betebeharririk ez izatea, nahitaez bizitza-sistema jakin baten arabera bizitzeko*» eta «*Erkidegoko instalazioak eta zerbitzuak, orokorrean herritarrentzat direnak, desgaitasuna duten pertsonen eskuragarri izatea, berdintasun-baldintzetan, eta halakoak pertsona horien beharrezkoak kontuan hartzea*».

Bestalde, Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen 5. ohar orokorrak (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen barruan egoteko eskubidearen ingurukoak, honako hau adierazten du: «*Irismen materialari dagokionez, 19. artikulua etxebizitza seguru eta egokiak, zerbitzu pertsonalak eta erkidegoko instalazio eta zerbitzuak eskuratu ahal izatea barne hartzen du. Etxebizitza eskura izatea erkidegoan gainerako pertsonen baldintza berdinetan bizitzeko aukera izatea da. 19. artikulua ez da behar bezala aplikatzen etxebizitza berariaz aurreikusitako eremuetan soilik eskaintzen bada eta desgaitasuna duten pertsonen eraikin, gune edo auzo berean bizi behar izateko moduan antolatzen bada. Erkidegoko eremu guztietan desgaitasuna duten pertsonen – bai bakarrik bizi direnei bai familiarekin bizi direnei– ostatu emateko etxebizitza irisgarrien kopuru nahikoa eduki behar da, aukeratzeko eskubidea izan dezaten eta horretarako aukera izan dezaten. Horretarako, oztoporik gabeko bizitegi-eraikin berriak egin behar dira eta dauden bizitegi-egiturak egokitu, oztopo horiek kentzeko. Gainera, etxebizitzek desgaitasuna duten pertsonen eskuratu ahal izateko moduko prezioa izan behar dute*».

Horregatik guztiagatik, **elkartu** desgaitasuna duten pertsonen artean parte hartzeko prozesu bat egin du, desgaitasuna duten pertsonen, gizarte irisgarriago eta inklusiboago baten esparruan, modu independentean bizitzeko duten eskubidea gauzatzeko etxebizitzek bete behar dituzten baldintzak aztertzeko.








02

PARTE HARTZEKO PROZESUAREN **HELBURUAK**




Parte hartzeko prozesuaren bidez, honako **helburu hauek** lortzeko asmoa zegoen:

- 
1 Desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskutik proposamenak eta ideiak **jasotzea**; etxebizitzek irisgarritasunaren ikuspegitik dituzten gabeziekin eta desgaitasuna duten pertsoneri modu independentean bitzeko eskubidea gauzatzen laguntzeko bete beharko lituzkeen baldintzekin lotutako proposamen eta ideiak, hain zuzen.
- 
2 Desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza duin, egoki eta irisgarriak diseinatzeko jarduketa-proposamenak **biltzea**.
- 
3 Desgaitasuna duten pertsonek beren eskaerak, salaketak eta proposamenak planteatu ahal izateko espazioak eta aukerak **sortzea**.
- 
4 Federazioak ordezkari eta eragile gisa egiten duen lanean **sakontzea**, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzearen bidez..
- 
5 Aurrez aurrekoak izan ohi ziren parte hartzeko moduetan alternatibak **bultzatzea**, pandemiak eragindako testuinguru sanitario, sozial eta ekonomiko berrira egokitzeko, mugikortasunari lotutako murrizketak ekarri zituelako, beste batzuen artean.

03

METODOLOGIA

Proiektuan erabilitako metodologia honako **printzipio** hauetan oinarritu da:



PARTE-HARTZEA.

Proiektuan aurreikusitako ekintzak desgaitasun fisikoa duten pertsonak eta inplikaturako eragile instituzional eta pribatuek parte hartuz egin dira.

GENERO-BERDINTASUNA.

Proiektua osatzen duten jarduera, analisi eta ebaluazio guztietan generoaren aldagia sartzea.

KOMUNITATEA.

Gizartea Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren inguruan kontzientziatzea, desgaitasuna duten pertsonen erabateko eta benetako gizarteratzea lortzeko tresna gisa.

DIZIPLINARTEKOTASUNA.

Proiektua talde profesional baten bidez garatu da. Elkartegintzan jasotako ezagutza eta egindako ibilbide luzea talde horren esku jarri da, eta, hala, aurreikusitako helburuak lortzen lagundu du, hainbat ikuspegitatik (soziala, juridikoa, teknikoa, etab.).

LANKIDETZA ETA ELKARLANA.

Sektore publikoaren eta hirugarren sektore sozialeko kasu honetan, Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonak ordezkatzeko dituzten erakundearen arteko elkarlana bultzatzea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean adierazitako moduan.

GIZA ESKUBIDEAK.

Gipuzkoa Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipioak eta orientabideak ezartzearen aldeko apustu irmoa egiten duen lurralde bihurtzea izan da proiektuaren helburu nagusia.

BOLUNTARIOTZA SUSTATZEA.

elkartuko boluntarioek proiektua osatzen duten ekintzen gauzatzean parte hartzea.



Printzipio horietan oinarrituta, parte hartzeko prozesua lau **fasetan** egin da:

1.

Proiektuaren diseinua: proiektuaren oinarri teorikoak eta metodologikoak finkatu dira, ondoren garatzeko, eta, era berean, beharrezko dokumentazioa prestatu da, bereziki, informazioa biltzeko galdetegia.

2.

Online galdetegiaren hedapena: desgaitasuna duten pertsonen eta hainbat eragileren, hainbat bitartekoren bidez (webgunea, posta elektronikoa, sare sozialak, *Elkarte* aldizkaria, etab.), informazioa biltzeko tresna telematikoa helarazi zaie.

3.

Parte hartzeko tailerra: bilera telematikoa baten bidez, metodologia egokia erabiliz, aurreko fasean jasotako informazioan sakondu da.

4.

Amaierako txostena egitea eta ondorioak hedatzea: parte hartzeko prozesuan landutako alderdiak dokumentu batean jasotzen dira eta gizarte osoari ezagutarazteko komunikazio-kanpaina bat egin. Azken horri dagokionez, ikus-entzunezko materiala lantzean arreta berezia jarri da, sare sozialen bidez zabaltzeko.

PARTE HARTZEKO
PROZESUAREN
FASEAK



04

GALDETEGIA

Proiektuaren funtsezko alderdietako bat parte hartu duten pertsonen informazioa eta proposamenak jasotzeko galdetegia diseinatzea izan da. Horretarako, etxebizitza batean esku hartzen duten askotariko elementuak zehaztu dira, irisgarritasun-katea irizpidetzat hartuta, eta, horren gainean, gela edo elementu bakoitzean izan ohi diren irisgarritasun-gabeziak jaso dira, baita etxebizitzak beharrezko irisgarritasun-baldintzak betetzea bermatzeko eta, ondorioz, desgaitasuna duten pertsonen artean bizimodu independentearen eredia bultzatzeko jarduketa-proposamenak ere.

Horrela, jarraian, galdetegia eta kontuan hartu diren adierazleak agertzen dira:

1. DATU PERTSONALAK

Izena / Abizenak

Sexua

Herria

Telefonoa

Emaila

2. ATARIRAINOKO IBILBIDEA

Etxebizitzaren irisgarritasuna eraikinaren kanpoaldean hasten da, eta eraikinaren eta espazio publikoen arteko komunikazioa barne hartzen du (espaloiak, aparkalekuak, garraio publikoko geltokiak, etab.).

Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure eraikinaren atarirainoko ibilbidean?

Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure eraikinaren atarirainoko ibilbidean?

3. ATARIA

Ataria eraikinaren espazio komuna da, eta bertan daude gainerako eremu komunetarako sarbideak, igogailurako sarbidea, postontziak, atezain automatikoa, etab. Kasu batzuetan, sarrerako ateak ez du ezarritako zabalera, atezain automatikoa gorago dago, igogailuak ez du neurri egokirik, ate erdiautomatikoak ditu, atariaren edo igogailuaren serreran malda nabarmena duen arrapala bat dago, etab.

Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure eraikinaren atarian (atezain automatikoa, atea, postontziak, igogailua, etab.)?

Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure eraikinaren atarian?

4. SOLAIRU-BANATZAILEA

Solairu-banatzailea etxebizitzaren atearen aurreko espazioa da. Kasu batzuetan, lekua oso txikia da gurpil-aulkia maniobratzeko, igogailuaren ate erdiautomatikoek oztopatu egiten dute irisgarritasuna, etxebizitzara sartzeko atearen aurreko espazioak ez du maniobratzeko aukerarik ematen estua izateagatik, argiztapena ez da egokia, edo ibilbidean koska isolatu bat dago. Etxebizitzara sartzeko ateari dagokionez, askotan pasabidea ez da egokia, eskailera bat dauka, ate estua, eta abar.

*Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure etxebizitzako solairu-banatzailan (etxebizitzara sartzeko atea, espazioak, argiztapena, etab.)?
Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure etxebizitzako solairu-banatzailan?*

5. BARNE-BANATZAILEA EDO HALL-A

Banatzaila edo hall-a etxebizitzara sartu ahala dagoen espazioa da, eta espazio guztiak banatzen ditu. Banagailuan atezain automatikoa, gela jakin batzuk pizteko mekanismoak, elektrizitate kuadroak eta abar aurkitu ohi dira.

*Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure etxebizitzaren barne-banatzailan/hall-ean (atezain automatikoa, etengailuak, espazioak, etab.)?
Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna etxebizitzaren barruko banatzailan/hall-ean?*

6. ETXEBIZITZAREN KORRIDOREA

Korridorea etxeko gela guztiak komunikatzen dituen espazioa da. Espazio horretan maniobratzeko arazoak daude geletarako sarbidean korridore estuegatik, igarobide estuko ateeetan, garaiera altuko mekanismo eta heldulekuetan, etab.

*Zure etxebizitzako korridorean normalki zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu (maniobragarritasuna, espazioak, ateak, heldulekuak, etengailuak, etab.)?
Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure etxebizitzako korridorean?*

7. EGONGELA

Egongela etxebizitzaren aisialdirako gunea da. Normalean, etxebizitzako sofak eta multimedia-aparatuak aurkitzen dira. Gune horretan arazo hauek izaten dira: espazioa, maniobragarritasuna, mugikortasuna oztopatzen duten altzariak, sofetarako transferentzia-espazioa, irisgarriak ez diren altzariak, ikusmen eta/edo entzumen-desgaitasuna duten pertsonak erabiltzeko beharrezko ezaugarriak ez dituzten multimedia-ekipoak, etab.

*Zure etxebizitzako egongelan, normalki, zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu (maniobragarritasuna, espazioak, multimedia-ekipoak, altzariak, etab.)?
Nola hobetuko zenuke zure egongelako irisgarritasuna?*

8. SUKALDEA

Janaria prestatzeko etxebizitzako gunea da sukalde. Askotan jangela bat izaten du lotuta, eta espazio irekien banaketekin ere gune bakarra izan daiteke sukaldea - egongela - jangela. Gune honetan arazorik ohikoena espazio falta eta altzarien eta etxetresna elektrikoaren irisgarritasun falta da. Sukaldeko altzariei dagokienez, arazoak daude gaineko altueretan, lanerako espazio libreetan, etxetresna elektrikoaren altueran, etab.

*Zure etxebizitzako sukaldean (espazioa, altzariak, etxetresna elektrikoak, etab.) zer irisgarritasun-gabeziak aurkitu ohi dituzu normalki?
Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako sukaldearen irisgarritasuna?*

9. JANGELA

Jangela elikagaiak kontsumitzen diren gunea da. Funtzio horri eskusiboki eskainitako lekua izan daiteke, baina sukaldearekin edo egongelarekin ere lotuta egon daiteke (espazio berean). Arazorik ohikoena sarreretan, maniobratzeko barne-espazioan, altzari irisgaitzetan eta abarretan izaten da.

*Zure etxebizitzako sukaldean zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki (espazioa, altzariak, etab.)?
Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako jangelaren irisgarritasuna?*

10. GELA NAGUSIA

Gela nagusia etxebizitzako gela bakarra izan ohi da, edo gela handiena, bat baino gehiago izanez gero. Arazoak izan daitezke maniobrak egitea edo ohera transferentziak egitea eragozten duten gelaren neurri txikiak, gurgil-aulkia edo bestelako laguntza-produktuak jartzeko lekurik ez izatea, ohearen ezaugarriak, armairuak, etab.

*Zure etxebizitzako gela nagusian, normalki, zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu (espazioa, ohea, laguntza-produktuak, armairuak, etab.)?
Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure etxebizitzako gela nagusian?*

11. GAINONTZEKO GELAK

Bigarren mailako gela kopurua aldakorra izan ohi da etxebizitzaren arabera. Ohikoa izaten da gurgil-aulkiaren erabiltzailea den desgaitasuna duen pertsonak ateko pasabide libretik logelara ezin sartzea, eta gainera, logela txikiagoak direnez, maniobrak egiteko zailtasunak izaten dira. Gela nagusien kasuan bezala, arazoak izaten dira altzariekin, mekanismoekin eta abarrekin.

*Zure etxebizitzako bigarren mailako logelan, normalki, zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu (espazioa, ohea, laguntza-produktuak, armairuak, etab.)?
Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako gainerako gelen irisgarritasuna?*

12. BAINUGELA

Norberaren garbitasunerako gunea da. Arazorik ohikoenak hauek dira: maniobra-espaziorik eza, atea barrualdera irekitzea, komunera edo dutxara transferentzia egiteko leku nahikorik ez izatea, dutxa edo bainuontzia soilik edukitzea, garabirik edo polipastorik ez izatea, etab. Komun-ontziei dagokienez, arazoa erabilera-dimentsioetan gertatzen da, komun baxu bat izatea, heldulekurik ez izatea edo al- tuera desegokian egotea, dutxarako sarbidean koska bat egotea, eta abar. Ohikoa izaten da, halaber, txorrotak eta bainurako osagarriak modu desegokian jartzea, edo konketa oso txikiak jartzea, inolako kirten egokiturik gabe.

*Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure etxebizitzako bainugelaren (lekua, dutxa, bainuontzia, laguntza- produktuak, garabiak, etab.)?
Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako bainugelaren irisgarritasuna?*

13. BALKOIA-TERRAZA

Etxebizitzaren kanpoko eremu pribatua da, eta esekitokia ere bertan koka daiteke. Arazorik ohikoena sarbide-maila da, bai eta neurri txikiak ere. Esekitokiari dago- kionez, ate bat izan dezakeen esparru itxi batean aurkitu ohi da, eta normalean gurpil-aulkiak erabiltzen dituzten pertsoneri ez die maniobrarik egiten uzten. Arropa zabaltzeko sokak gorago egoten dira, eta ez dute igotzeko edo jaisteko sistemarik izaten.

*Zure etxebizitzako balkoian edo terrazan (koska, lekua, eseki- tokia, etab.), zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu nor- malki?
Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako balkoi edo terraza- ren irisgarritasuna?*

14. TRASTELEKUA

Eraikinaren goiko solairuetan edo eraikinaren sotoetan edo beheko solairuetan dagoen biltegitratzeko lekua da. Arazo ohikoena trastelekurainoko ibilbidea da. Korridore estuetan egon ohi dira eta barrura sartzeko maniobrarik ezin da egin. Baliteke igogailua trastelekuraino ez iristea, pasabideetako ateez pasabide txikiak izatea ere ohikoa da, edo ateez irekitzea zaila izatea, ateez malgukiak daudelako. Gainera, trastelekua bera txikia izaten da, eta ez da maniobratzeko eta apal edo espazio guztietara iristeko aukerarik ematen.

*Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure etxebizitzaren trastelekuan (korridoreak, ateez, espazioa, igogailuak, apalak, etab.)?
Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako trastelekuaren irisgarritasuna?*

15. GARAJEA


Ibilgailuak aparkatzeko lekua da. Espazio horietan arazo ohikoena plazen dimentsioa eta autotik gertu dauden transferentzia-espazioen dimentsioa da. Plazatik igogailurako (baldin badago) ibilbidean ere ohikoak dira arazoak, baita eraikinaren irteeran ere.

*Zure etxebizitzako garajearen (korridoreak, ateez, igogailuak, plaza murriztuak, etab.) zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki?
Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako garajearen irisgarritasuna?*

16. BESTELAKOAK

Azaldu ez duzun beste parte batean zailtasunak dituzu, edo bestelakorik aipatu nahi duzu?

Eskerrik asko galdetegia betetzeagatik. Etxebizitzetan irisgarritasun unibertsala sustatzeko egiten dugun lanerako baliagarria izango zaigu.



05

GALDETEGIAREN
EMAITZAK:
**DATUAK ETA
BALORAZIOAK**




Jarraian, galdetegia erantzun duten pertsonen soslaiaren ezaugarriak:

ERANTZUN DUTEN PERTSONAK		%
Pertsona fisikoak	65	% 98,5
Pertsona juridikoak	1	% 1,5
GUZTIRA	66	

ERANTZUN DUTEN PERTSONEN SEXUA		%
Emakumezkoa	33	% 50,8
Gizonezkoa	32	% 49,2
GUZTIRA	65	

POBLACIÓN DE LAS PERSONAS QUE HAN RESPONDIDO		
Andoain	2	% 3,0
Aretxabaleta	1	% 1,5
Arrasate	2	% 3,0
Azkoitia	1	% 1,5
Billabona	1	% 1,5
Deba	1	% 1,5
Donostia	24	% 36,4
Eibar	2	% 3,0
Errenteria	1	% 1,5
Hernani	4	% 6,1
Hondarribia	2	% 3,0
Irun	7	% 10,6
Lasarte-Oria	3	% 4,5
Lazkao	1	% 1,5
Mutriku	1	% 1,5
Ondarroa	1	% 1,5
Ordizia	1	% 1,5
Pasaia	2	% 3,0
Tolosa	1	% 1,5
Usurbil	1	% 1,5
Zarautz	4	% 6,1
Beste bat	3	% 4,5
GUZTIRA	66	

Jarraian, galdetegia erantzun duten pertsonak bidalitako informazioa eta egin-
dako ekarpenak jasotzen dira:



DESGAITASUNA DUTEN
PERTSONAK ETA
ETXEBIZITZA GAIARI
BURUZKO PARTE
HARTZEKO PROZESUA

**GALDETEGIARI
EMANDAKO ERANTZUNAK**

1) ATARIRAINOKO IBILBIDEA

Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure eraikinaren atarirainoko ibilbidean?



- *Espaloiak gaizki beheratuta.*
- *Maila bat.*
- *Oraintxe bertan, espaloi bat moztuta dago denboraldi luzerako, kiroldegia eraikitzen ari direlako, eta, beste espaloia pixka bat estua denez, errepidetik joaten naiz eta arriskutsua da.*
- *Atariaren sarreran ez dago erabateko irisgarritasunik; eskailera-maila altuak eta arrapala oso altuak daude.*
- *Espaloiak ez daude egoera onean, eta, obrak daude-nean, ez da ibilbide alternatibo irisgarririk bermatzen.*
- *Espaloiek maila asko dituzte.*
- *Zebra-bideak ez daude behar bezala beheratuta.*
- *Aldapa handi samarra igo behar da bizi naizen auzora iristeko.*
- *Autobusetik jaisteko altuera handiegia eta, zebra-bideetako espaloietan dauden «botoiek» traba egiten dute.*
- *Espaloi batzuk ez daude behar bezala beheratuta, autobusetako arrapalek batzuetan ez dute funtzionatzen, batzuetan espaloia eta errepidearen arteko tartean zulo oso sakona dago. Trena hartu behar dudanean, trenera iritsi aurretik, txartela jartzeko tornua pixka bat altu dago.*
- *Oro har, nire eraikinaren atariraino, irisgarritasuna nahiko ona da. Baina, nire etxearen bueltan dagoen oinezkoen pasabidea gurutzatzea nahiko arriskutsua da, autoak hiru norabidetatik datozelako. Bidegurutze ho-*

1) ITINERARIO HASTA EL PORTAL

rretan ez dago semafororik, metro batzuk aurrerago bat dagoelako. Normalean, oinezkoen pasabide hori gurutzatzea saihesten dut, batez ere bakarrik banoa; norbaitekin joaten banaiz, bai, gurutzatzen dut, baina bestela ez.

- *Eskailerak saihesteko, ibilbidea aukeratu behar da eta horrek nire eraikinerira iristeko buelta handiagoa ematea eskatzen du.*
- *Espaloiak ez daude zero kotan eta baldosak apurtuta daude edo mugitu egiten dira.*
- *Hirigunean ez dago nahikoa aparkalekurik eta, askotan, mugikortasun urriko pertsonen senideen txartela dutenek gaizki erabiltzen dituzte.*
- *Garraiobideen geltokietan nasaren eta ibilgailuaren artean distantzia dezente dago, nasak estuak direnez puntako orduetan mugikortasuna zailtzen dute, autobusak geltoki batzuetan ez direnez behar bezainbeste jaisten autobusera sartzeko maila bat uzten dute.*
- *Aldapak eta eskailerak.*
- *Espaloi batzuek zintarri altuak dituzte eta horiek igotzea kostatzen da.*
- *Espaloi estuetan jarritako zuhaitzek espaloien zabalera arauetan finkatutako gutxienekoa baino txikiagoa izatea eragiten dute. Gainera, askotan, zuhaitz-txorkoak ez dira espaloien arrasean instalatuta egoten. Ondorioz, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen (IDP) erorikoak edo bihurrituak izateko arriskua dago.*
- *Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat hautematen zailak diren aireko oztopoak eta zebra-bideak.*
- *Sortu berri diren hiri-espazioetan, espaloien zabalerrari esker lortutako erosotasuna eta segurtasuna zentzugabeki alferrik galtzen dira, oinezkoen espazio hori ESPALOIAREN BERAREN BARRUAN diseinatutako bidegorrien bidez inbadituz. Kasu batzuetan, aldrebeskeria hori burlaizez gauzatzen da, gainera, bi espazioak bereizteko zer egin eta lerro gorri bat marrazten baita!*

- *Eskudel desegokiak.*
- *Gizalegerik gabeko herritarrak, txakur ar eta eme zoragarriekin.*
- *Duela urte batzuetatik, leku batzuetan, taberna eta kafe-tegietako altzariak oinezkoentzako ibilbideak inbaditzen dituzte.*
- *Gurpil-aulkian noanean, oinezkoen pasabideetan maila bat edo desnibela dago.*
- *Zebra-bideak ez daude erabat beheratuta.*
- *Zebra-bideetan zuloak daude, galtzada-harriak altxatuta edo desnibelatuta.*
- *Uhin elektromagnetikoen emisio-maila handiak.*
- *Nire eraikineko oinezkoen gunera iristeko, toki batzuetan espaloia ez dago behar bezain ondo beheratuta.*
- *Etxebizitzetako obretan ez da behar bezala errespetatzen scotter-ak eta aulkiak pasatzeko lekua uztea eta ez da egoera horren segimendurik egiten.*
- *Egoitza-zentroa hiriaren erdigunetik oso urrun dago.*
- *Gurpil-aulkiak igo ezin dituen zintarri batzuk daude.*
- *Eskailerak daudenean, maila bakoitza ez dago behar bezala seinaleztatuta, edo ez dago barandarik.*
- *Markesinetako kristaletan kartelik ez dagoenean, talka egiteko arriskua daukat.*
- *Semaforoek ez dute soinu-gailurik.*
- *Espaloien ertzak altuak dira, espaloien aldapak eta jaitsierak oso pikoak aulkirako, eta, irristakorrak, hostoen eta uraren eraginez. Desnibel asko eta maila altuak, dendetako arkupeetan.*

1) ITINERARIO HASTA EL PORTAL

- *Auto batzuk espaloi gainean aparkatzen direnez, gurpil-aulkiarekin pasatzea eragozten didate.*
- *Oinezkoen pasabideak ez du botoi itxurako zirkuluz hornitutako baldosarik pertsona itsuek hauteman ahal izateko.*
- *Herrien erdiguneetan, espaloiak eta bideak oso ondo egokitu dira eta ondo mantentzen dira, baina beste eremu edo auzo batzuetan mantentzea ez da hainbeste zaintzen. Kalearen edo auzoaren arabera, askotan, zuloak daude, espaloiak altxatuta, estolda-estalki irregularrak, sasiak, argiztapen falta...*

Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure eraikinaren atarirainoko ibilbidean?



- *Espaloiak gehiago garbitu eta egokitzea.*
- *Espaloi zabalagoak egitea, 0 kotara beheratzea.*
- *Arrapala malda txikiagokoa izatea eta zabalagoa.*
- *Espaloiak 0 kotan.*
- *Egoera txarrean dauden espaloiak konpontzea, obrak daudenean ibilbide alternatiboak jartzea, eta, horrez gain, seinaleztapen egokia bermatzea.*
- *Hirigintzaren arloko ardurak dituztenak gurpil-aulki batean eseri eta ibilbidea eginaraziz.*
- *Espaloi zabalagoak eta 0 kotara beheratzea.*
- *Bizi naizen eraikinaren inguruko desnibel handiak gainditu ahal izateko arrapala egokiak bermatzea.*

- *Zebra-bideak seinaleztatzeko beste sistema batzuk, egungo «botoiak» ez bezalakoak.*
- *Kaleak lauago eta eskailerarik gabe jarriz, garraibide publikoko arrapalak gainbegiratzeko norbait jarriz eta altuera handian dauden hiri-altzariak beherago jarriz.*
- *Nire ustez, oinezkoen pasabidea kentzea edo autoak hiru norabidetatik etortzea eragozte, hau da, zirkulazioa murriztea, izango litzateke irtenbidea.*
- *Hiri-ibilbideetan eskailerak gainditzeko arrapalak edo igogailuak jartzea.*
- *Tartean diren administrazioei eta enpresei irisgarritasunari buruzko legea bete dezatela exijituz.*
- *MUPentzako plazetan aparkatzeko txartela duten pertsonen eta haien senideei zuzendutako informazio-kampaina bat eginez, ondo erabil dezaten.*
- *Mugikortasun urritua duten pertsonentzako plaza gehiago jarriz.*
- *Eskaileren ordeztarapalak jarriz eta aldapak hain pikoak izan ez daitezen saiatur.*
- *IDPek identifikatu ahal izateko, zebra-bideek oinez hautemateko gainazal bat izan behar dute eta gainazal horrek ondoko espaloi osoa zeharkatu behar du. Hori ez da beti betetzen. Gainera, baldosa ez lauz estalitako espaloietan, instalatzen den oinez hautemateko gainazalak behar adinako kontrastea izan behar du IDPek maki-laren bidez hauteman ahal izateko.*
- *Aireko oztopoetan arreta jartzea. Arauak xedatzen duenez, oinezkoen ibilbideetan ez du oztoporik egon behar 2,2 metroko gutxieneko altueratik behera (zuhaitzen beheko adarrak, aireko kableak, aldamiok, eraikin mugakideetako landaredi inbaditzailea, olanak, etab.). Baldintza hori ez betetzeak arrisku potentziala dakarkie IDPei.*

1) ITINERARIO HASTA EL PORTAL

- *Hiri-espazioak arautzen dituen araudiaren arabera, oinezkoen ibilbideek libre egon behar dute. Hiri-altzariak (ur-harguneak edo sute-ahoak, esertzeko bankuak, farolak, zaborrontziak, etab.) fatxada-lerrotik urrun dagoen ertzean lerrokatu beharko dira.*
- *Arrapalen eta/edo eskaileren eskudelak ezin hobeto definituta daude indarrean dauden araudietan. Erabat lauak izan behar dute, bertikalean bermatua egon behar dute eta ez dute eskua libreki irristatzea oztopatzen duen profilik izan behar. Eskudelen muturrek bihurtu bat izan behar dute, IDPei amaiera hurbil dagoela ohartarazteko. Batzuetan, ohartarazpena behar baino lehenago dago; beste batzuetan, berriz, behar baino geroago, eta, beste batzuetan, ez dago.*
- *Oinezkoen pasabideak konponduz; espaloia maila errepidearekin berdinduz, sakangune baten bidez.*
- *Espaloiak eta zebra-bideak birgaitzea eta hobetzea.*
- *Uhin elektromagnetikoen emisioa kontrolatzea.*
- *Gaizki egindako beheratzeei dagokienez, hobetzen saiatzea.*
- *Obra osoan Scott baten zabalera errespetatuz, eta, egiturazko aldaketen kasuan, behin-behineko pasabideetan zero kota ziurtatzea.*
- *Espaloi estuen kasuan, oztopo-zutoinak jartzea ibilgai-luek ez inbaditzeko.*
- *Egoitza-zentroak hirigunetik gertuago kokatzea.*
- *Zintarriak eta aparkalekuak atariaren mailara beheratzea.*
- *Aldapa batzuen zorian irristatzearen aurkakoa botaz, edo irristatzearen aurkakoren batekin margotuz.*
- *Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat oinez hautemateko baldosak bermatzea, baita aldapetan erortzea saihesteko ere.*

- *Garrantzitsuena ondo mantentzea da.*
- *Argiztapenari dagokionez, argi-kutsadura saihesteko joera dago, baina batzuetan argiztapena eskasa da, batez ere adineko pertsonentzat edo ikusmen-arazoak dituztenentzat.*

2) ATARIA

Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure eraikinaren atarian (atezain automatikoa, atea, postontziak, igogailua, etab.)?



- *Ez daukat igogailurik, eskailerak igotzeko aulki bat daukat.*
- *Atezain automatikoa altu dago. Sarrerako atea irekitzeko eta irekita mantentzeko zaila da. Igogailu txikia. Postontziak dauden eremura iristeko eskailera dago eta postontziak oso altu daude.*
- *Sarrerako pieza angeluzuzenaren ordeztu (1,5 cm-ko altuerako prisma; euri-ura ez igarotzeko dela pentsatzen dut), onartutako maldak dituen kono-enbor formako pieza bat jarri ahalko litzateke; horrek ere euri-ura igarotzea oztopatuko luke, baina, gainera, hasierako «saltoa» desagerraraziko luke.*
- *Ate zaharra, oso astuna.*

2) PORTAL

- *Postontziak altu daude.*
- *Atezain automatikoa ez da irisgarria, postontziak altu daude, atarira sartzeko arrapala motza eta pikoa da, atezain automatiko bikoitza dago, igogailurako sarrera justua da eta igogailutik kanpo ez dago maniobrak egiteko lekurik, ataritik etxera hiru ate.*
- *Atezain automatikoa eta postontziak altu. Igogailua be-rehala ixten da.*
- *Ez naiz igogailuko botoietara iristen.*
- *Atariko atea nire kabuz irekitzeko arazoak ditut.*
- *Nire atarian, gabezia dezente daude... Atarira sartzeko maila txiki bat dago eta, sartu ahal izateko, atariko bigarren atetik sartu behar dut, alde horretatik aulkiak maila hobeto igo baitezake (gaur egun, eskuz egindako arrapala txiki bat dago, baina nahiko pikoa da, eta, horregatik, askotan, aulkiari kostatzen zaio arrapala igotzea. Beraz, batzuetan hobe da beste atetik sartzea arrapala erabiltzea baino). Ez dago atezain automatikorik, beraz, beti norbaiten laguntza behar dut atea irekitzeko eta txirrina jotzeko, oso altu baitago. Atariaren barruan hiru maila daude, baina arrapala bat dute. Hala ere, arrapala horiek oso gaizki eginda daude, inklinazio handia baitute. Horregatik, igotzeko laguntza behar dut. Ez naiz postontzietara iristen, oso altu jarrita baitaude. Igogailua ez da aulkia sartzeko bezain handia. Beraz, sartu ahal izateko, aulkiaren oin-pausatzekoak kendu behar ditut. Igogailuko botoietara ere ezin naiz iritsi, oso goian jarrita baitaude.*
- *Giltza sartu ondoren, atariko atea indar handiz bultzatu behar da ireki ahal izateko.*
- *Leku gutxi dago gurpil-aulki batekin maniobrak egiteko edo mugitzeko arazoak dituen edonor erraz mugitzeko. Atea irekitzerakoan, leku asko kentzen da. Gainera, desgaitasuna duten pertsonentzat daukagun arrapala piko-pikoa da.*
- *Atarira sartzeko maila bat dago eta igogailua estua da.*

- *Atea oso astuna da, sartzeko eskailerak oso altuak dira, atarian ez dago igogailurik.*
- *Ate gogor eta astuna. Ez dago lekurik ibilgailuetarako: bizikletak, ibilgailu elektrikoak, etab.*
- *Atezain automatikoa oso altu dagoenez, ez naiz iristen; atea oso astuna denez, asko kostatzen zait irekitzea; postontziak oso altu daudenez, ez naiz iristen; igogailuari deitzeko botoira iristea zaila da, eskailerak oso gertu baitaude.*
- *Pertsonalki, igogailuan nahiago dut botoiak goranzko lerro bertikalean egotea, behetik gora. Bestalde, ez dut uste ahotsaren bidezko komunikazioa zailtasun gaindiezina denik.*
- *Atezain automatikoa oso altu dago sakatzeko, atea estua da eta ia beti hautsita dago, eta, igogailua estua denez, ezin naiz sartu.*
- *Atezain automatikoa oso altu dago, baina postontziak ere. Atea oso zabala da, baina pisu handia du.*
- *Atea irekitzeko zaila da, ixteko malgukiaren eraginez. Atezain automatikoaren sakagailuen diseinua, sakatzeko zailak dira.*
- *Postontziak eta atezain automatikoa ez dira irisgarriak gurpil-aulkian dauden pertsonentzat. Ezta itsuentzat ere.*
- *Atariko atea irekitzeko bai, horretarako zailtasuna dut. Kanean Scooter elektriko batekin ibiltzen naiz, eta, iristean, atea ireki behar dut, esku batekin atea barrura bultzatu eta beste eskuarekin scooterra gidatu... Lortzen dut, baina bai, kosta egiten da.*
- *Atariko atearen zabalera muga-mugakoa.*
- *Gurpil-aulkiarekin igogailura sar daiteke, baina deserosoa da eta, irteteko maniobra egitea, apur bat neketsua.*
- *Ez atariko atek ez igogailuko atek ez dituzte legez ezarritako neurriak betetzen.*

2) PORTAL

- *Atezain automatikoa ez da egokia gor-itsuentzat.*
- *Atariaren sarreran maila bat eta sarreratik igogailura eskailerak egotea da ohikoena. Maila horiek kentzea oso garestia da. Ohiko atezain automatikoak ez die laguntzen adineko pertsonei edo desgaitasuna dutenei.*
- *Atariak lau eskailera ditu, beraz, burdinazko ate oso astunak dituen patio batetik sartu eta atariko beste ate pilsutsu batetik pasatu behar dut igogailura iristeko.*
- *Gurpil-aulki baten erabiltzailea izanik, atea irekitzea, eskuzkoa denez aulkiarekin maniobra handia egin behar delako.*
- *Itzulinguru bat egin behar dudala, nire atarira sartzeko bide azkarrenak, bizilagun guztiek erabiltzen dutenak, 3 maila dituelako eta ez zutelako arrapalarik jarri.*

Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure eraikinaren atarian?



- *Igogailua jartzea.*
- *Atezain automatikoko botoiak beherago jartzea. Atariko atea aginte bidez irekitzea edo, gutxienez, errazagoa izatea. Postontzien kokapena eta altuera aldatzea.*
- *Sarrerako atea motorizatuz.*
- *Postontziak beherago jartzea eta nik ireki ahal izateko sistema bat jartzea.*
- *Bizilagunak gurpil-aulkian jarri eta nire ibilbidea eginaraziz.*

- *Atarira sartzeko maila beheratzea.*
- *Atezain automatikoa beherago jartzea eta, atariko atea motorizatzea, aginte batekin irekitzeko.*
- *Nire atariko irisgarritasuna hobetzeko, lehenik eta behin, ia atari osoan obrak egingo nituzke. Atarira sartzeko maila kendu eta ate automatiko bat jarriko nuke, neure kabuz ireki ahal izateko. Txirrinak altuera egokiagoan jarriko nituzke eta ohikoak baino botoi handixeagokoak. Gero, arrapala bat egingo nuke, hiru eskailera-mailak batzeko, inklinazio-maila handirik gabea. Postontziak altuera egokiagoan jarriko nituzke. Igogailu handiago bat jarriko nuke, ez zabalagoa, sakonagoa baizik. Egungo igogailuek forma angeluzuzena dute, hau da, sakonak dira, baina nire igogailuak forma karratua du. Hobekuntza horiek egingo nituzke nik. Hala ere, nire eraikinean ezin dira hobekuntza horietako gehienak aplikatu, zaharra delako. Esate baterako, ezin da igogailua aldatu, ez baitago igogailu handiago bat jartzeko moduko tartarik. Nik dakidanez, aldatu ahal izango lireratekeen gauza bakarrak, eta gainera oso ondo geratuko lirerateke, atariko sarrera, arrapalak, postontziak, atariko atea, txirrina eta atezain automatikoa dira. Gaur egun, komunitatea eraikinean berrikuntza-lanak egiteko zain dago, sarbide batzuk hobetu ahal izateko.*
- *Ataria plaza batean dagoenez, nire ustez, ataria handitu egin beharko litzateke, malda luzeagoa izan dadin eta ez hain pikoa.*
- *Jabeen erkidegoei eta etxaldean administrazioko enpresei zuzendutako informazio-kanpaina bat eginenez, irisgarritasunari buruzko legea betearaz dezaten. Eusko Jaurlaritzako Industria Sailari, igogailuei 4 urtean behin egiten zaizkien berrikuspenetan igogailuaren tamaina irisgarria izatea nahitaezko baldintza gisa barne har dadin.*
- *Arrapala batekin eta igogailua edo, kasuan-kasuan, eskailera-igogailu bat jarritz.*
- *Alferrik galdutako espazioa berrerabiliz.*

2) PORTAL

- *Beste atezain automatiko bat jarriz, beheago; ate automatikoak; postontziak beheago; igogailuari deitzeko botoi alternatibo bat, leku eta altuera irisgarrian.*
- *Ate zabalagoak jarriz, sarrerako maila kenduz, atea irekitzeko sakagailuak beheago jarriz eta igogailu zabalagoa.*
- *Postontziak eta atezain automatikoa beheago jarriz eta atea automatikoki ireki dadila.*
- *Atea automatikoki irekitzea. Sakagailu erabilerrazak dituen atezain automatiko bat jartzea eta multzoak altuera irisgarrian egon behar du.*
- *Atezain automatikoa beheago jarriz, atea automatizatuz eta igogailu handiagoa jarriz. Desgaitasun guztietarako egokitzapenak barne.*
- *Bai postontziak, bai atezain automatikoa zorutik 1 m-ra jaitsita.*
- *Domotika gaitzea, sarrera eta irteera errazteko.*
- *Aginte bidez irekitzen den ate bat jarriz, garajeetan bezala, adibidez.*
- *Atezain automatikoko eta igogailuko botoien diseinua aldatzea (koloreak, letren tamaina, etab.), braillea irakurtzen ez duten ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen erabili ahal izan ditzaten.*
- *Igogailua egokitzea, behar den neurrikoa izateko.*
- *Igogailura iristeko mailak eta eskailerak kenduz. Ohiko atezainaren ordeztu bideo-atezaina instalatuz.*
- *Eskaileretan arrapala eta ateetan automatismoa jartzea.*
- *Funtsean, ataria mugimendu-sentsoreekin irekitzea, adibidez.*

3) SOLAIRU- BANATZAILEA

Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure etxebizitzako solairu-banatzaillean (etxebizitzara sartzeko atea, espazioak, argiztapena, etab.)?



- *Argiztapena eskasa da eta automatismoa motela.*
- *Etxeko atea ohiko giltzaz irekitzen da eta ezin naiz bakarrik sartu. Bestalde, etxetik ateratzean ezinezkoa zait ixtea.*
- *Argi gutxi.*
- *Lekua oso txikia da gurgil-aulki bat maniobratzeko. Dei-txirrina oso goian dago.*
- *Maniobrak egiteko espazio txikia dago (igogailua kon-tuan hartu gabe, handia delako). Argia automatikoa da eta igogailutik etxeko atera irteteko behar dudan den-boran itzali egiten da.*
- *Ez daukat leku nahikorik biratu eta etxeko atetik zuzen sartu ahal izateko. Gainera, atea maila txiki bat du eta sartzean kostatzen da egiten zait pasatzea. Atea jotzeko txirrina oso goian dago.*
- *Igogailuak bisagradun ate bat du. Eskailera-buruak ma-niobrak egiteko estu samarrak dira.*
- *Igogailuko atea estuak dira. Solairuko banalekuko es-pazioa txikia da gurgil-aulkiarekin maniobrak egiteko.*
- *Atea irekitzeko leku txikia dut, aulkiarekin atzeko horma jotzen dut eta sarraila gogorra da.*
- *Atea irekitzea ezinezkoa da, igogailuko atearen eta bi-zilagunen korridore komunaren artean ez dago lekurik, ezin da etxebizitzara sartu.*

3) DISTRIBUIDOR DE PLANTA

- *Eskailerak igogailuaren irteeratik nahiko gertu daude.*
- *Nire etxebizitzako atea bazter batean dago eta, etxebizitzaren diseinua dela eta, atea eskuinerantz irekitzen denez, sarraila bazterraldean geratzen da, beraz, giltza sartzeko eta sarraila biratzea pixka bat zailak egiten zaizkit. Bai etxebizitzara sartzeko, bai etxebizitzatik irtetean giltzaz itxi nahi dudanean.*
- *Etxebizitzarako sarbidean egur txiki bat dago eta hesi arkitektoniko txiki bat da.*
- *Gela komunetan, sentsoreen bidezko argiztapenak ez du ondo erantzuten denboraren aldetik, beti desdoitzeak gertatzen dira, eta, horren ondorioz, denbora-tarte batzuetan ilunpean zirkulatzen dut.*
- *Etxeko atea irekitzea kosta egiten da.*
- *Igogailua txikia da.*
- *Etxebizitza zaharra da eta eskailera-mailak neurri desberdinekoak dira, ez homogeneoak. Argia eskuz pizten da, ez automatikoki.*
- *Espazioak estuak dira, igogailuaren botoiak altuegi daude eta igogailura sartzeko neurriak ere oso txikiak dira.*

Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure etxebizitzako solairu-banatzailan?



- *Ate zabalagoa eta argiztapen hobea.*
- *Diruarekin, baina garestia da.*
- *Argi-detektagailua instalatuz.*
- *Txirrina beherago jartzea.*

- *Maniobrak egiteko espazioa handituz eta argi automatikoa luzarago piztuta egotea eraginez.*
- *Zabalagoa egingo nuke, aulkia arazorik gabe biratu ahal izateko. Ateari maila hori kenduko nioke eta lurraren arrasean utziko nuke. Txirrina beherago jarriko nuke, altuera egokiagoan eta ohikoak baino botoi handixegokoa.*
- *«Gortina» atea duen igogailu bat jarriko nuke.*
- *Jabeen batzarrean planteatuz igogailuko atea estuak izateak gurgil-aulkia erabiltzeko zer arazo sortzen dituen, akordio batera iritsi eta horien orde zabalago batzuk jartzeko. Eusko Jaurlaritzari laguntza-dirulaguntza handiagoak eskatuz, elkarteen edo entitateen bitartez, eraikinen irisgarritasuna hobetzeko neurri horiek hartzeko, jabeen erkidegoko pertsonen kostu handia eragin gabe.*
- *Atea mugitzea, leku gehiago uzteko; ate automatikoa jartzea.*
- *Igogailuko atea aldatuz eta etxebizitzetara sartzeko korridorea zabalduz, baina hori ezinezkoa da.*
- *Eskaileretan hesi mugikor bat jarri.*
- *Etxeko atea automatizatzea.*
- *Eskailerak egokituz eta argi-etengailua sarreratik hurbilago jarri.*
- *Leku gehiago izatea eta etengailuak gorago jartzea, baita igogailuko botoiak ere.*
- *Presentzia-detektagailu egokiak instalatuz eta igogailuan ate laminatuak jarri.*
- *Argia pizteko presentzia-detektagailuak instalatuz eta igogailuan ate automatikoak jarri.*

4) BARNE-BANATZAILEA EDO HALL-A

Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure etxebizitzaren barne-banatzailan/hall-ean (atezain automatikoa, etengailuak, espazioak, etab.)?



- *Ez naiz ez etengailuetara ez atezain automatikora iristen.*
- *Atezain automatikoa altuegi dago niretzat.*
- *Leku gutxi eta atezain automatikoa oso altu.*
- *Elektrizitate-koadroak ezin ditut ondo ikusi.*
- *Ez naiz etengailuetara iristen, oso goian baitaude. Atezain automatikoa zaharretakoa da eta ezin dut erabili. Gainera, oso goian dago eta ez naiz iristen.*
- *Espazioetan oztopo asko daude, ez dira zabalak. Eten-gailuak eta gainerakoak altuegi daude.*
- *Atezaina oso altu dago eta argiaren etengailuetara iristea zaila da.*
- *Ezin naiz gela bakar batera ere sartu nire kabuz.*
- *Motorrik gabeko gurgil-aulkiarekin etxeko gela guztietan ibil daiteke, baina elektrikoarekin ez.*
- *Iristen naizenerako atezain automatikoa itzali egiten da.*
- *Atezain automatikoarekin begiratu gabe irekitzen dut, interfonoa hartzea zaila delako.*
- *Txirrinak oso altu daude.*
- *Sukaldera iristeko maila altua da.*
- *Ezin ditut atea ireki edo itxi, ezta argiak piztu ere.*

- *Sarrerako atea oso astuna da.*
- *Atezain automatikoa, pizteko mekanismoak, etab. altu daude.*

Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna etxebizitzaren barruko banatzailean/hall-ean?



- *Elementuak domotizatuz.*
- *Espazio handiagoa eta atezain automatikoa beheiago.*
- *Elektrizitate-koadroak leku irisgarriago batean jarriz.*
- *Etengailuak behegiago jarriko nituzke, altuera egokiagoan eta botoi handixeagokoak. Atezain automatikoari dagokionez, oraingo bat jarriko luke, modernoetakoak. Gainera, behegiago jarriko nuke, altuera egokiagoan.*
- *Atezaina behegiago jarri eta etengailuak mugitu, irisgarriagoak izan daitezten.*
- *Errazena etxez aldatzea izango litzatekeela pentsatzen dut.*
- *Atezain automatikoaren programazioan iraupen luzeagoa jartzea.*
- *Gurpil-aulkitik atezain automatikoaren bidez ireki ahal izatea.*
- *Etxebizitzaren banaketa aldatuz, baina etxebizitzak m²-ak aprobetxatzeko diseinatzen dira, ez horretaz gain egokituak eta praktikoak izateko; etxebizitza «egokitu» kasuan, berriz, errazena egiten dute, eta gero arazoak gurek daukagu, etxea alferrik galtzen baita. Erradia-*

4) DISTRIBUIDOR INTERIOR O HALL

doreak debekatu egingo nituzke eta zoru bero-emailea jarriko nuke, espazioak gehiago aprobetxatzeko.

- *Txirrinak altuera egokian jarriz.*
- *Ateei zabaltasuna emanaz.*
- *Banalekuak handiagoa izan beharko luke eta domotika eduki beharko luke, atea automatikoki ireki eta ixteko; argiztapenaren kasuan, berdin.*
- *Atea automatikoki irekitzeko sistema bat instalatuz.*
- *Atezain automatikoa eta koadro elektrikoa altuera irisgarriagoan instalatuz.*

5) ETXEBIZITZAREN KORRIDOREA

Zure etxebizitzako korridorean normalki zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu (maniobragarritasuna, espazioak, atea, heldulekuak, etengailuak, etab.)?



- *Korridorea pixka bat estua da.*
- *Maniobratzeko eta biratzeko zailtasunak.*
- *Ez naiz ateetako heldulekuetara eta etengailuetara iristen.*
- *Geletara iristeko korridore estuetan maniobratu behar da, pasabideko atea txikiak dira, mekanismoak eta heldulekuak altu daude.*

- *Maniobrak egiteko lekua pixka bat justua da.*
- *Korridorea luze samarra da, baina pixka bat estua maniobrak egiteko. Ateak ez dira behar bezain zabalak. Ez naiz etengailuetara iristen. Ateetako heldulekuetara ere ezin naiz iritsi.*
- *Ate estuak.*
- *Korridorea eta geletarako sarbideak estuak dira.*
- *Etengailu eta entxufe batzuetara iristea ezinezkoa da.*
- *Oso estua, ezin naiz pasatu.*
- *Ateak neurri zaharretakoak dira.*
- *Ateetako heldulekuak nik heltzeko eta maniobratzeko ditudan zailtasunak kontuan hartuta diseinatuak izan litezke.*
- *Heldulekuak eta ateen biratzeko norabidea irteteen edo sartzean.*
- *Pixka bat estua da eta, gelaren batera sartzeko maniobra egitean, atearekin edo hormarekin estropezu egiten dut.*


Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure etxebizitzako korridorean?



- *Korridorea pixka bat zabalagoa eginez.*
- *Ate gidaridunak jarritz.*
- *Domotikako sistemak txertatuz.*
- *Korridoreetatik geletara sartzeko maniobragarritasun handiagoa, ate zabalagoak, mekanismoak beherago.*

5) PASILLO VIVIENDA

- *Korridorea zabalagoa izatea egokiagoa litzateke, edo, bestela, hain luzea ez izatea. Ateak zabalagoak egingo nituzke. Etengailuak altuera egokian jarriko nituzke eta botoi handixeagokoak. Ateetako heldulekuak, ateari oinarekin edo oin-pausatzekoarekin ireki eta ixteko sistemaren bat bilatuko nuke, hau da, heldulekua behean jarriko nuke.*
- *Espazioa handitzea eta teknologia domotikoa gehiago erabiltzea, etxebizitzako elementu batzuk (argiak, pertsonak) edozein tokitatik kontrolatzeko.*
- *Administrazio publikoei etxebizitzak birgaitzeko laguntzen zenbatekoa handitzeko eta baremoak hobetzeko eskatuko nieke, pertsona gehiagok jaso ahal izan ditzaitez laguntza horiek.*
- *Sarbide-eremuak zabalduz.*
- *Baranda jarritz.*
- *Tabikeak botatz.*
- *Korridorea handitu eta geletan ate gidaridunak jarri.*



6) EGONGELA

Zure etxebizitzako egongelan, normalki, zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu (maniobragarritasuna, espazioak, multimedia-ekipoak, altzariak, etab.)?



- *Leihoak, pertsianak eta gortinak irekitzeko zailtasunak.*
- *Espazio txikia, maniobragarritasun txikia, altzariak mugikortasuna oztopatzen dute, sofetan esertzeko espazioa, altzariak ez dira irisgarriak.*
- *Altzarien banaketa dela eta, ez dago leku nahikorik. Multimedia ekipoen urrutiko aginteak ez daude nire eskue-
ran. Ez naiz balkoiko eta leihoko ateetara iristen eta ezin ditut ireki. Gainera, balkoiko atea estua da eta, gainera, maila/ertz txiki bat du eta, horren ondorioz, iristea zailagoa da. Ezin ditut gortinak ireki, ezta pertsianak jaitsi ere, eskuz egin behar baita, eta ezin dut egin, ez dudalako nahikoa indarrik.*
- *Armairu batzuk lurraren arrasean daude eta barruko objektuak eskuratzea zaila da.*
- *Ezinezkoa zait leihoak irekitzeko eskulekuak erabiltzea.*
- *Bertara iritsi eta gailuak (adibidez, irratia, telebista, argia, etab.) martxan jarri ahal izateko atea estua da.*
- *Ezin dut maniobrarik egin, oso estua da.*
- *Eserita eskuera dudana bakarrik har dezaket.*
- *Atea ixtea zaila egiten zait.*
- *Altzari batzuk soberan daude eta espazioren batera hurbiltzea oztopatzen didate.*
- *Gurpil-aulkiak pasatzeko ate gehiegi.*
- *Altzariak ez daude behar bezain egokituta.*

6) SALÓN

- *Nire desgaitasunagatik gailu asko erabili behar ditut, baina etengailu gutxi ditudanez, «lapurrak» erabili behar ditut eta hori arriskutsua da. Gainera, gelan leku gehiagoren falta sumatzen dut eta argi natural gehiago izan nahiko nuke.*
- *Terrazara iristeko maila bat dago.*

Nola hobetuko zenuke zure egongelako irisgarritasuna?



- *Leihoak, pertsianak eta gortinak irekitzeko automatizazioa.*
- *Altzariak kenduta, espazio gardenagoa.*
- *Altzariak leku handiagoa edukitzeko moduan jarriko nituzke, edo, bestela, altzari batzuk kenduko nituzke, leku handiagoa lortzeko. Urrutiko aginteak eskueran dudan leku irisgarriren batean jarriko nituzke (adibidez, mahai batean). Balkoiko eta leihoko ateetan AAKo sistemaren bat erabiliko nuke, automatikoki kontrolatu ahal izateko. Eta balkoiko atea zabalagoa egingo nuke eta maila/ertza kenduko nuke, balkoira arazorik gabe atera ahal izateko. Gortinak irekitzeko eta pertsianak jaisteko AAKo sistemaren bat erabiliko nuke, automatikoki kontrolatu ahal izateko.*
- *Armairuetan apal gidaridunak instalatzea, bertan dauden objektuen irisgarritasuna hobetzeko, bai gordetzeko, bai ateratzeko.*

- *Administrazio publikoei I+G-ko enpresentzako laguntzak handitzeko eskatuko nieke, altzari eta multimedia-ekipamendu irisgarriagoak sortzeko iker dezaten.*
- *Sartzeko atearen zabalera handituz.*
- *Ate gidaridun bat instalatuz.*
- *Ezinbesteko altzariak edukitzea.*
- *Espazioak gehiago irekitzea eta gurpil-aulkiaren maniobragarritasunera egokitzea.*
- *Gauzak kokatzeko leku onena bilatuz.*
- *Sistemak domotizatuz.*
- *Altzari-aukera handiagoa izatea. Fabrikazio espezifikorara jo behar da eta batzuetan hori lortzea garestia eta zaila da.*
- *Entxufe gehiago eta espazio nahikoa edukiz.*
- *Balkoira iristeko dagoen maila txiki-txikia kendu eta balkoia handituko nuke, aulkiarekin ezin baita sartu.*
- *Lekurik ez dagoenez, egokiagoa litzateke panel moduko sistemak izatea, malgutasun handiagoa izateko eta espazioa irabazteko.*
- *Espazio irekiak eta argitsuak bermatuz, baita altuera egokiko altzariak ere, baina, era berean, atseginak eta erabilerrazak. Pertsona bakoitzaren ezaugarrietara eta premietara egokitutako espazioak izan behar dute, ospitale itxurarik ez izateko.*

7) SUKALDEA

Zure etxebizitzako sukaldean (espazioa, altzariak, etxetresna elektrikoak, etab.) zer irisgarritasun-gabeziak aurkitu ohi dituzu normalki?



- Oro har, etxetresna elektrikoak (hozkailua, labea, bitrozeramika, etab.) altu daude.
- Armairu altuak altuegiak dira.
- Niretzat dena eskuraezin dago.
- Sukalde-gainekoa altuegia da.
- Argi gutxi dago eta ez naiz sukaldeko etengailuetara iristen.
- Ez naiz goiko armairuetara iristen. Harraskaren azpian zulorik ez dagoenez, hori ere ezin dut erabili.
- Tokirik eza eta altzarien eta etxetresna elektrikoaren irisgarritasunik eza. Sukalde-gainekoen altuerak, lanerako espazio libreak, etxetresna elektrikoaren altuera.
- Txikia da eta armairu batzuk, harraska, etxetresna elektrikoak eta bitrozeramika altu daude. Ezin dut berogailua (urarena) ondo ikusi.
- Sukaldeko sarreran maila txiki bat dago, eta horrek, batzuetan, pixka bat zailago egiten dit sukaldera iristea. Sukaldeko atea barruan maniobrak egiteko oztopo handia da. Altzariak eta etxetresna elektrikoak, ezin dut bakar bat ere erabili.
- Askotan, maniobragarritasun-arazoak, espazio faltagatik.
- Bertara iristeko modua eta altzarien altuera. Sukaldeko tresnak oso altu edo oso baxu daude.
- Armairuak altu daude eta hozkailua luzeegia da.
- Sukalde-gainekoaren, sukaldearen, eta abarren altuera arazo konplexua da. Hemen, diseinu unibertuala nekez

aplika daiteke. Gainera, desgaitasun asko gerora sortutakoak dira.

- *Oso estua da eta ezin naiz sartu.*
- *Entxufe-puntuen gaia, sukalde-gainekoaren aurrealdean egon ohi dira eta, horiek erabili ahal izateko, luzatzeko ahalegina egin behar da. Instalazio elektrikoaren diseinuan, ez sukaldearenean bakarrik, agian kontuan hartzen da argiaren sakagailuak altuera egokian jarri beharra, baina entxufe-puntuak jartzeko, egokitu gabeko etxebizitzaren ereduari jarraitzen zaio. Iristeko zailak diren lekuetan jartzen dira.*
- *Sukaldearen banaketa hobetu daiteke, aulkia harraskan hobeto kokatzeko. Harraskak txoko batean egon behar luke, ez suaren eta ebakitzeko mahaiaren artean L bat eginez.*
- *Sukalde-gainekoa altua eta sua urrun iristeko.*
- *Balkoian dudan arropa-esekitokira iristeko maila bat dagoenez, leihoaren markoari heldu behar diot seguru egoteko.*
- *Labea oso behean dagoenez, erabiltzeko zailtasunak ditut.*
- *Mikrouhin-labea altuegi dago.*
- *Txorrota altuegi dago.*

Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako sukaldearen irisgarritasuna?



- *Atea kenduz.*
- *Armairuak beheago jarriz eta behekoen irisgarritasuna hobetuz, altzari ateragarri modernoagoak erabiliz.*
- *Domotikako sistemak instalatuz.*

7) COCINA

- *Harraskaren azpian hutsune bat bermatuz.*
- *Sukaldea handiagoa izatea. Hankak harraskaren azpian sartzeko espazioa, altzari irisgarriak gurpil-aulkiaren altueran.*
- *Handituz eta berogailua (urarena) toki irisgarriago batean jarriz.*
- *Sukaldeko sarrera lurraren arrasean jarriko nuke. Ate gidaridun bat jarriko nuke. Eta altzariei eta etxetresna elektrikoei dagokienez, nire kasuan, nahiz eta ahalik eta ondoen egokitu, ezingo nituzke sukalde-lanak egin, eskuetan ditudan mugengatik.*
- *Altzarien altueraren erregulagailuak instalatuz.*
- *Apal gidaridunez hornitutako armairuak jarriko nituzke eta motaren bateko ahots bidezko laguntzaile bat erabiltzea aztertuko nuke, sukaldearen zatiren bat domotikoki kontrolatzeko.*
- *Administrazio publikoei I+G-ko enpresentzako laguntzak handitzeko eskatuko nieke, altzari eta multimedia-ekipamendu irisgarriagoak sortzeko iker dezaten.*
- *Administrazio publikoei etxebizitzak birgaitzeko laguntzen zenbatekoa handitzeko eta baremoak hobetzeko eskatuko nieke, pertsona gehiagok jaso ahal izan ditzaten laguntza horiek.*
- *Atearen zuloa handituz.*
- *Armairu automatikoak eta hozkailua irisgarriagoa jartzea.*
- *Entxufeak altuera egokian ez ezik, kokapen irisgarrienean ere jarriz.*
- *Armairuen sakonera ez ezik, zabalera ere garrantzitsua da, ahalik eta gehiena begien bistan izateko.*
- *Bitrozeramikan erliebezko botoiak.*
- *Sukaldean argiztapen egokia.*
- *Balkoira iristeko maila kentzea.*
- *Labea altuera egokian jartzea, baita sukalde-gainekoa ere.*

8) JANGELA

Zure etxebizitzako sukaldean zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki (espazioa, altzariak, etab.)?



- *Maniobratzeko barneko espazioa, altzari ez-irisgarriak.*
- *Ukipen-teknologia ikusmen-desgaitasuna duten pertsonen berreroa da. Aurrean dugun arazoa teknologikoa baino gehiago politikoa da, lege justuak aldarrikatu eta aplikatzearekin lotua.*
- *Gurpil-aulkirako maniobragarritasuna.*
- *Altzariak oso estandarrak dira, ez dira pertsona bakoitzaren behar eta nahietara egokitzen.*

Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako jangelaren irisgarritasuna?



- *Pertsianetarako eta argiztapenerako domotika-sistemak instalatuz.*
- *Espazio handiagoa, altzari irisgarriagoak, espazio gardenagoa.*
- *Espazioak irekiz, sukaldea egongelarekin eta jangelarekin batera.*
- *Metro koadro gehiago, edo diseinu karratua, laukizuzena izan beharrean, mahai bat jarriz gero espazio osoa jaten duelako.*

9) GELA NAGUSIA

Zure etxebizitzako gela nagusian, normalki, zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu (espazioa, ohea, laguntza-produktuak, armairuak, etab.)?



- *Aulkiarekin ibiliz gero, birak egiteko pixka bat txikia.*
- *Leku txikia, gailu elektriko asko, armairu eskuraezinak niretzat.*
- *Aulkiarekin maniobrak egiteko lekua falta zait; logelara atzeraka sartu behar dut ohearekiko paraleloan jartzeko.*
- *Gelaren neurri txikiek maniobrak egitea edo ohera sartzea galarazten dute, gurpil-aulkirako eta bestelako laguntza-produktuetarako lekurik eza, ohearen ezau-garriak, armairu ez-irisgarriak.*
- *Ez naiz balkoiko eta leihoko ateetara iristen eta ezin ditut ireki. Gainera, maila/ertz txiki bat du eta, horren ondorioz, iristea zailagoa da. Ezin ditut gortinak ireki, ezta pertsianak jaitsi ere, eskuz egin behar baita, eta ezin dut egin, ez dudalako nahikoa indarrik. Armairuko atea ezin ditut ireki eta armairuko tiraderak ere ez (armairuaren azpian daude).*
- *Arazorik handiena armairuetako apal altuetara iristea da, baita objektu astunak altxatzea ere, oheko kanapea, esaterako.*
- *Sarbidea estua da, armairuak ate gidaridunak eduki beharko lituzke eta ohean eusteko puntu bat egon beharko litzateke.*

- *Ez naiz leku garaietara iristen.*
- *Ohe bikoitzak aulkiarekin maniobrak egiteko leku gutxi uzten du.*
- *Armairuak dira arazorik handiena. Normalean erabiltzen dudana eskura uzten saiatzen naiz.*
- *Ohearen eta hormaren artean armairura iristeko pasabide estua dago.*

Nola hobetuko zenuke irisgarritasuna zure etxebizitzako gela nagusian?



- *Atea zabalduz, horren ordeaz ate gidaridun bat jarritz.*
- *Gelak zabalagoa izan beharko luke.*
- *Argiztapena eta pertsianak domotizatuz.*
- *Gelan leku handiagoa edukiz.*
- *Gelak handiagoak izatea, maniobrak egin ahal izateko, gurpil-aulkirako eta beste laguntza-produktu batzuetarako leku handiagoa, ohearen ezaugarriak, armairu irisgarriak. Laguntza-produktuak instalatzea.*
- *Balkoiko eta leihoko ateetan AAKo sistemaren bat erabiliko nuke, automatikoki kontrolatu ahal izateko. Eta balkoiko atean dagoen maila/ertza kenduko nuke, balkoira arazorik gabe atera ahal izateko. Gortinak irekitzeko eta pertsianak jaisteko AAKo sistemaren bat erabiliko nuke, automatikoki kontrolatu ahal izateko. Armairuan ate gidaridunak jarriko nituzke, edo, bestela, AAKo sistema baten bidez automatikoki kontrolatzeko modukoak. Eta, armairuko tiraderetan, oinarekin edo beste edozer gauzarekin*

9) HABITACIÓN PRINCIPAL

bultzatze hutsarekin irekitzeko sistemaren bat erabiliko nuke (nire armairuko tiraderak behean baitaude), edo, bestela, gorago jarriko nituzke, iritsi ahal izateko.

- *Etxebizitzako armairuak berrantolatzea, beherago egon daitezen.*
- *Administrazio publikoei I+G-ko enpresentzako laguntzak handitzeko eskatuko nieke, altzari eta multimedia-ekipamendu irisgarriagoak sortzeko iker dezaten.*
- *Administrazio publikoei etxebizitzak birgaitzeko laguntzen zenbatekoa handitzeko eta baremoak hobetzeko eskatuko nieke, pertsona gehiagok jaso ahal izan ditzaten laguntza horiek.*
- *Armairuaren barruko banaketa nire altuerara egokituz.*
- *Ohe eta besaulki artikulatu eta mekanizatuen beharra. Barnealdeko garabiak eta igogailuak, mugikortasuna errazteko. Armairu egokituak, automomia pertsonala errazteko.*
- *Dirulaguntza eskuragarriak, oheak, besaulkiak, armairuak, mahaia, ispiluak eta multimedia egokitzeko; sentsore bidezko argiztapena, garabiak, igogailuak, eskailera-igogailuak, oztopo arkitektonikoak gainditzeko gailuak eta abar eskuratzeko.*
- *Zoru bero-emailea erradiadoreak saihesteko, metro koardro karratu gehiago, ez laukizuzenak, lekua alferrik galtzen delako.*
- *Bermatzeko barra bat, ohetik altxatzeko.*
- *Atearen markoa handituz edo ate gidaridunak jarriz.*
- *Armairuan jaitsi eta igotzen den barra bat jarriz.*
- *Espazioa pertsona bakoitzaren beharren arabera diseinatzuz.*
- *Ohera gurrpil-aulkiarekin hurbiltzeko adina leku izatea bermatuz.*
- *Argiztapen-sistema eskuera egotea edo domotizatua izatea.*

10) GAINONTZEKO GELAK

Zure etxebizitzako bigarren mailako logelan, normalki, zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu (espazioa, ohea, laguntza-produktuak, armairuak, etab.)?



- *Apalak eta pertxak altu.*
- *Leku falta.*
- *Armairutik arropa hartzea kostatzen da.*
- *Gela hauetan aurkitzen dudan gabeziarik handiena espazioa da. Alzarien banaketaren eraginez, leku gutxiago dago. Bestalde, ez dago laguntza-produkturik (ohe artikulatuak, etab.). Ezin ditut ez leihoa ez gortina ireki, ezta pertsiana jaitsi ere. Ezin ditut armairuak ireki, ezta tiraderak ere.*
- *Ateak estuak dira, oheak baxuak, maniobratzeko leku gutxi dago.*
- *Armairuen altuera ez da egokia.*
- *Laukizuzenak direla, korridore itxurakoak, eta dena alferrik galtzen dela, aulkiarekin ibiltzeko lekua utzi behar delako.*
- *Ohearen inguruko pasabidea oso estua da.*

10) HABITACIONES SECUNDARIAS

Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako gainerako gelen irisgarritasuna?



- *Pertsianak eta argiztapena domotizatzea.*
- *Espazio handiagoa lortzen saiatuko nintzateke, altzarien antolaketa aldatuz edo, bestela, altzari batzuk kenduz. Leihoan AAKo sistemaren bat erabiliko nuke, automatikoki irekitzeko eta, hala, pertsiana ere kontrolatzeko. Gortinak ireki eta ixteko sistema bera erabiliko nuke. Armairuetan ate gidaridunak jarriko nituzke, edo, bestela, AAKo sistema baten bidez automatikoki kontrolatzeko modukoak. Eta tiraderetan bultzatze hutsarekin irekitzeko sistemaren bat erabiliko nuke.*
- *Administrazio publikoei I+G-ko enpresentzako laguntzak handitzeko eskatuko nieke, altzari eta multimedia-ekipamendu irisgarriagoak sortzeko iker dezaten.*
- *Administrazio publikoei etxebizitzak birgaitzeko laguntzen zenbatekoa handitzeko eta baremoak hobetzeko eskatuko nieke, pertsona gehiagok jaso ahal izan ditzaten laguntza horiek.*
- *Atea handituz eta altzariak aldatuz.*
- *Domotika barne hartzea, etxebizitza egokitzen laguntzeko.*
- *Gela karratuagoak eta handiagoak.*
- *Pertsona bakoitzaren beharren arabera diseinatuz eta panelak erabiliz malgutasuna izateko.*

11) BAINUGELA

Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure etxabizitzako bainugelan (lekua, dutxa, bainuontzia, laguntza-produktuak, garabiak, etab.)?



- *Espazio txikia. Oztoporik gabeko dutxa, baina txikia. Garabia ez da sartzen.*
- *Dutxan dagoen maila moduko batek dutxako aulkia ondo igotzea eragozten du.*
- *Gurpil-aulkiarekin biratzeko leku falta.*
- *Ez dago maniobrak egiteko lekurik, atea barrualderantz irekitzen da, ez dago komunera edo dutxara sartzeko nahikoa leku, ez dago garabi edo polipastorik, komuna baxua da.*
- *Bainugelan ez dago nahikoa leku. Komuna ez dago ondo jarrita bermatzeko barra bat erabiliz ni bakarrik eseri ahal izateko. Dutxa pixka bat estua da. Konketa pixka bat altu dago eta ez naiz ondo iristen.*
- *Komuna baxua da, konketa handiegia eta altuera desegokian dago, eta sarbidea estua da.*
- *Dutxan sartzeko zintarri txiki bat dago eta dutxako atea txikia da.*
- *Ez dut dutxarik.*
- *Zorua ez da irristagaitza.*
- *Dutxara sartzeko maila bat dago.*
- *Bainugelako leihoa altu dago, beraz, ezin naiz iritsi.*
- *Bainu-aulkirik eta taka-takarik eza, garbitu eta mantentzeko laguntzarik eza.*

11) BAÑO

- *Dutxa eta bainuontzia ditut, baina dutxa baino ez dut erabiltzen, bainuontzirako garabi bat beharko nuke.*
- *Ez daukat laguntza-produkturik.*
- *Erradiadoreek espazioa kentzen dute.*
- *Altzariak ez daude egokituta.*
- *Dutxa txikia eta heldulekurik gabea da, eta beste bainugelako bainuontzia ez dut erabiltzen, beldurratik.*
- *Bainugela txikia da eta, gainera, banaketa ez da oso egokia. Dutxa ez dago 0 kotan.*
- *Gurpil-aulkiarekin ez naiz sartzen, ez dago segurtasun-heldulekurik.*
- *Komunean eta dutxan helduleku falta, konketa eta ispilua altu daude, dutxako botoiak bizkarrean geratzen dira, dutxan ez dago eserlekurik.*
- *Dutxara sartzeko zailtasunak ditut, ispiluak eta txorrotak altuegi daude.*
- *Dutxa txikia da eta dutxarako sarbidea estua. Komunera-ko sarbidea estua da. Ez dago barra-egokitzapenik.*

Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako bainugelaren irisgarritasuna?



- *Zoru jarraitua.*
- *Laguntza-produktuak, bainuontziaren ordeztutako dutxa jar-tzea.*

- *Argiztapen domotizatua.*
- *Maniobrak egiteko espazio handiagoa, ate gidariduna, komunera edo dutxara sartzeko espazio handiagoa, garabia edo polipastoa instalatzea, komun altu bat jartzea.*
- *Bainugela askoz handiagoa egingo nuke, maniobrak arazorik gabe egin ahal izateko. Komuna mugitzeko eta laguntza-barra bat jarriz bakarrik esertzeko aukera emango lidakeen toki batean jarriko nuke. Dutxa zabalagoa egingo nuke, arazorik gabe sartu eta irten ahal izateko. Konketa beheiago kokatuko nuke eta txorrota handi bat jarriko nioke, ireki eta itxi ahal izateko.*
- *Bainugelari leku handiagoa ematea, dutxako platera jartzea eta apal gidaridun ateragarriak dituzten armairuak instalatzea.*
- *Atearen zuloa handituz eta ate horren ordez gidaridun bat jarriz, komun altuago bat jarriz eta konketa egokituz.*
- *Dutxa 0 kotan, beste mota bateko ateekin.*
- *Dutxa jarriz.*
- *Egokitzeko behar diren laguntzak eskuratzeko legeak eginez eta eraikuntzako gremio guztiei ezagutaraziz eta prestakuntza emanez.*
- *Garabia edukiz.*
- *Erradiadoreak kenduz.*
- *Altzari egokituak bermatuz.*
- *Atearen markoa handituz eta bainuontzirako heldulekuak eta taula bat jarriz.*
- *Komunean helduleku bat jarriz, dutxan eserleku bat eta ispilua beheiago jarriz.*
- *Bainugela pertsona bakoitzaren beharretara egokituz.*

12) BALKOIA-TERRAZA

Zure etxebizitzako balkoian edo terrazan (koska, lekua, esekitokia, etab.), zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki?



- Ezinezkoa da. Espazioa txikia da eta sartzeko maila bat dauka.
- Irteerak maila txiki bat du.
- Sukaldetik balkoira pasatzea kosta egiten zait, bai, leihotik balkoira maila bat dagoelako eta euskarriren bat behar dudalako.
- Egin zuten arrapatatik sartzea zaila egiten zait. Nahiko estua da, gainera. Esekitokia leiho batean daukat eta leku txarra da.
- Ez naiz balkoi edo terrazako ateetara iristen, maila bat dute eta ate batzuk pixka bat estuak dira. Esekitokira ez naiz iristen.
- Bertara iristeko maila bat dago eta, gainera, atea estua da.
- Ezin naiz pasatu, estua da.
- Barrutik pasatzeko maila bat dago eta gurpil-aulkian ezin da egin, laguntzarekin ez bada.
- Gurpil-aulkiarekin ezin da iritsi.
- Esekitoki txiki bat da eta ez daukat bertara iristerik, atalase bat dagoelako. Espazioa txikia da, beraz, atalaserik ez balego ere, ezingo nuke erabili.
- Esekitokiak arazoak sortzen dizkit. Leihoa akordeoi formakoa da. Zutik kosta egiten zait erabiltzea, baina aulkian ezinezkoa da.

Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako balkoi edo terrazaren irisgarritasuna?



- *Sarbidea 0 kotan jarritz.*
- *Marko metalikoa lurrean integratuta egotea, maila saihesteko, baina hori jarduera estandarretatik kanpo dago eta gainkostua izango luke.*
- *Balkoiko edo terrazako ateei dagokienez, AAKo sistemaren bat erabiliko nuke, automatikoki kontrolatu ahal izateko. Maila kenduko nuke, arazorik gabe iritsi ahal izateko. Eta ate estuen kasuan, zabalagoak egingo nituzke. Esekitokia, ahalik eta ondoen egokituta ere, ezingo nuke erabili, ez baitaukat nahikoa indar.*
- *Udalei edo administrazio publiko eskudunei eskatuko nienke fatxadan aldaketak eragiten dituzten obrak egiteko Ja-been Erkidegoen baimena izateko betebeharra kentzeko, obra horiek irisgarritasuna hobetzeko baldin badira.*
- *Maila kenduz eta sarbidea handituz.*
- *Agian gutxieneko arauen bidezko konponbideetan pent-satu beharko litzateke. Lekua balego, esekitoki altxagarria-ren kontua nahiko erraza litzateke.*
- *Etxebizitzaren barrualdea eta kanpoaldea maila berean jartzea. Baina eraikin berrietan ez dute halakorik egiten.*
- *Etxebizitzaren diseinutik hasiko nintzateke. Sarrera ses-tran egotea eta espazio hori maniobrak egiteko eta berau ondo erabiltzeko nahikoa izatea.*
- *Maila saihestu eta esekitokia egokitu.*
- *Aulkia bertan biratu ahal izatea, sarrera zero kotan egotea eta ate gidariduna edukitzea.*
- *Balkoiko atearen ordezteteko desnibelik ez duen bat jartzea, esekitoki egokituago bat eta hori pixka bat ixtea, euria egiten duenean irrist egin ez dezadan.*

13) TRASTELEKUA

Zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki zure etxebizitzaren trastelekuan (korridoreak, atek, espazioa, igogailuak, apalak, etab.)?



- Ezinezkoa. Sarbideak estuak dira, atek ere bai.
- Suaren aurkako atek dira eta maila bat dute, korridoreak estuak dira.
- Pasabideko ateen tarteak txikiak dira; irekitzea zaila da, atee-tan malgukiak daudelako; trastelekua txikia denez, ez dago maniobrak egin eta apal edo espazio guztietara iristerik.
- Etxebizitzak ez du trastelekurik. Baina etxetik kanpo trasteleku bat daukat. Trastelekuko atea pixka bat estua da eta ezin dut neuk bakarrik ireki. Ez naiz apaletara iristen.
- Espazio falta, eta hormen akabera oso bortitza, gorputzarekin edo buruarekin kolpe bat hartuz gero.
- Eskailera-mailak, igogailua ez delako haraino iristen; korridore estuak; ate estuak; objektu gehiegi daude eta espazioa mugatzen dute.
- Korridore estua, maniobratzea ezinezkoa da. Ate estuak eta, erdian zutabe bat dagoenez, 2 bizikleta justu-justu sartzen dira.
- Azken solairuan dago eta eskailerak ditu.
- Igogailua ez da trastelekuen guneraino iristen.
- Suaren aurkako atee-tatik sartzea da zaila, baita trastelekuko apaletara iristea ere.
- Atek irekitzea zaila da, norbaitek lagundu behar dit.

- *Laukizuzena denez ezin dudala barruan biratu eta espazio guztia alferrik galtzen dela.*
- *Igogailua ez dela iristen eta eskailera-tarte luze bat igo behar dela.*
- *Ezin naiz igo, ez dago igogailurik.*
- *Igogailua ez da trastelekura iristen eta bertara iristeko atea eta korridorea oso estuak dira.*

Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako trastelekuaren irisgarritasuna?



- *Bi atea motorizatuz.*
- *Pasabideko atea zero kotan, ate arinak eta irekitzeko automatismoz hornituak, trasteleku zabalagoa, maniobrak egiteko eta apal edo espazio guztietara iristeko aukera izateko.*
- *Atea zabalagoa egingo nuke eta AAKo sistemaren bat izan beharko luke automatikoki ireki eta itxi ahal izateko.*
- *Apal ateragarriz osatutako armairuak, eta, hormak estaltzea, pikatua kentzeko.*
- *Jabeen Erkidegoari behar diren obrak egiteko eskatuko nioke.*
- *Eusko Jaurlaritzari eskatuko nioke jabeen erkidegoei irisgarritasunari buruzko legea betetzea exijitzeko.*
- *Hobe litzateke korridorea eta atea zabalagoak izatea.*
- *Eraikinaren diseinuan, igogailuak trastelekuaren solairura iritsi behar du, nahiz eta teilatupean egon.*
- *Igogailua solairu bat gehiago igotzea eta horren eraginpeko teilatuaren eremua berreraikitzea*

14) GARAJEA

Zure etxebizitzako garajeen (korridoreak, atearak, igogailuak, plaza murriztuak, etab.) zer irisgarritasun-gabeziak aurkitzen dituzu normalki?



- *Suaren aurkako ate bikoitza dago eta bakoitzak maila bat du.*
- *Su-itzalgailuak altuegi daude.*
- *Ezin ditut korridoreko atearak neuk bakarrik ireki.*
- *Plazaren eta autora sartzeko ondoko espazioaren tamaina.*
- *Ezin naiz ate nagusitik sartu, maila nahiko altua baitu eta, gainera, atea estua da, beraz, autoek garajetik irteteko erabiltzen duten atetik sartu eta irten behar dut.*
- *Garajetik igogailurako distantzia, 3 ate pasatu behar ditut.*
- *-2. solairuan dago eta aulkiarekin arrapala igotzea ezinezkoa da.*
- *Plazen zabalera ez da nahikoa.*
- *Kanpotik garajeetara sartzeko eskailera batzuk daude. Garajeko plazak tamaina normala du, hau da, ibilgailua aparkatuta dagoenean ezinezkoa da mugikortasun murriztua duen pertsona bat ibilgailura sartzea edo hortik irtetea.*

Nola hobetuko zenuke zure etxebizitzako garajearen irisgarritasuna?



- *Plaza tamaina handiagokoa izatea eta ondoan autora sartzeko espazio handiagoa izatea.*
- *Garajetik nire etxebizitzarako sarbide zuzenagoa jarritz.*



15) BESTELAKOAK

Azaldu ez duzun beste parte batean zailtasunak dituzu, edo bestelakorik aipatu nahi duzu?



- *Desgaitasuna espazioek dute, ez pertsonak.*
- *Beti gutxienez 68/2000 Dekretua betetzea.*
- *Termostatora iristeko zailtasunak ditut.*
- *Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzerik ez badugu, mugikortasun urriko pertsonentzat askoz zailagoa da etxebizitza egoki bat eskuratzea.*
- *Etxebizitzaren azpiegitura ez ezik, gizartearen ikuspegia ere arazo bat da. Desgaitasuna dugun pertsonok laguntzaile batekin biziko garela ziurtzat jotzen da. Horrela jarraitzen duen bitartean, zaila izango da desgaitasuna duten pertsonentzako etxebizitza egokiak izatea.*
- *Etxebizitza berriek irisgarritasunari buruzko legeak ezartzen dituen gutxieneko baldintzak bete beharko lituzkete. Obra berrietan, desgaitasuna duten pertsonen behar bereziak berma daitezke, baina arazoa berrikuntzetan sortu ohi da, proiektu tekniko konplexuak, eta, gainera, oso garestiak, eskatzen dituztelako.*
- *68/2000 Dekretuan, desgaitasuna duten pertsonak izan ditzaketen zailtasun gehienak azaltzen dira, eta, nire ustez, ondo legoke auzokideen erkidegoek ezagutzea eta oinarri gisa erabiltzea.*
- *Nire ustez, oso garrantzitsua da teknologia domotikoa instalatzea, etxebizitza irisgarriagoa izan dadin mugikortasun urriko pertsonentzat.*

- *Domotikak ematen duen laguntza nabarmenduko nuke. Sustatu egin beharko litzateke eta horren berri ez duenari aholkularitza egokia eskaini.*
- *Etxebizitzen irisgarritasunean aldaketak eta hobekuntzak egiteko laguntzak azkarrago bideratzea eskatuko nuke, auzokideen erkidegoarentzat izatea, osotasun gisa hartuta, eta zenbatekoak handiagoak izatea.*
- *Desgaitasuna duten pertsonentzat babes ofizialeko etxebizitza egokituak, irisgarriak eta arrazoizko prezioan! Orain!*
- *Seguruena, irisgarritasun-gabezia zabalduena pobrezia da. Konponbide errazak daude, baina aplikatzeko zailak.*
- *Diputazioari tabikeak botatzeko eskatu diot, baina ukatu egin didate eta ez dut hori egiteko ahalmenik.*
- *Eraikinaren goiko aldean solarium bat dago, aire zabalean egon edo eguzkia hartu ahal izateko. Azken solairutik goraino igotzeko eskailerak daude. Aulkian igotzea ezinezkoa da.*
- *Nire ustez, etxebizitza egokituak ezin dira ereduazko formatu batean eraiki eta ondoren zozketatu. Erabiltzailea nor izango den kontuan hartu beharko litzateke, eta beharren arabera hornitu beharko lirateke. Eta funtsezkoa da behar adina leku izatea, adibidez: bi gelako pisu egokitua izan nahi badugu, hiru logelako pisu estandar batek duen espaziotik abiatu behar dugu.*
- *Hiri-mugikortasunean, oztopo arkitektonikoak ez dira kasu guztietan saihestu; are gehiago, kasu askotan, biderik luzeena egokitutakoa da. Oztoporik gabeko espaloia batzuetan, bat-batean aurreko espaloiarekin bat ez datorrela ikusten dugu, ondorioz, errepidetik ibili behar dugu eta hori arriskutsua da. Bidegorrietan ere gertatzen da, adibidez: Pasai Antxotik Erreteriarako bidean, Beraunera sartzeko goiko biribilgunean.*
- *Lehen aipatu dudan eguneroko irisgarritasun-arazoa – atarian sartu eta irteteko, eta, gero, korridoretik ibiltzea*

pisuko ateraino, eta bigarren aldiz maniobratu behar izatea, ateeekin eta giltzekin-, are neketsuagoa eta zailagoa da gainditzeko klima-baldintzak txarrak direlako, euria egiten duelako –eta hori etengabe gertatzen da gure lur maite honetan– aterki bat eskutik helduta eraman behar dugunean.

- *Gurpil-aulkia erabiltzen dudanez, ezin naiz armairu garaietara iritsi, beraz, beti behar dudana beheko aldean jartzen saiatzen naiz, dena den, nire desgaitasunaren eraginez, garabia, dutxa eta beste gauza batzuk erabiltzeko laguntza behar dut. Atarian ate automatiko bat jartzea bai, hori oso lagungarria izango litzateke.*
- *Etxebizitza planoaren gainean ikusita erosi nuen. Eta aldatu eta nire beharretara egokitu nuen, eraikitzailearen laguntzarekin. Aldea ez zen handia izan, gauza batzuk kendu eta beste batzuk aldatu bainituen. Bigarren esku-ko etxe batean askoz zailagoa litzateke.*
- *Eremu komun guztiak irisgarriak izatea (teilatu laua, sarbidea ataritik duten patio komunak); su-itzalgailuak altuera txikian egotea, komunitateko argien koadroa altuera txikian, atariko iragarki-kortxoak altuera txikian.*
- *EHS/SKA pairatzen duten desgaitasun organikoa duten pertsonentzako etxebizitza-eredua ingurumen-ku-tsatzaile kimikoak eta fisikoak ahalik eta gehien murriztean oinarritzen da. Kimikoei dagokienez, oro har, gaitz hori duen pertsona baten etxebizitzan airearen kalitateak oso kontrolatuta egon behar du; produktu kimikoen mailak ahalik eta txikiena izan behar du. Esperientziak erakusten duenez, horretarako materialik egokienak elementu mineral bizigabeak dira, hala nola gehigarririk gabeko hormigoia, kare-akaberak, erradioaktibitatea kontrolatuta duten harrizko materialak (bereziki, granitoaren kasuan), beira, aluminioa, zeramikazko baldosak, etab. Produktu organikoen erabilera minimizatu egiten da, ezegonkortasun handiagoa dutelako, konposatu organiko lurrunkor gehiago isurtzen dituztelako eta lizuna izateko joera handiagoa dutelako. Produktu sintetikoak erabat baztertzeko dira.*

Etxebizitzaren diseinuari dagokionez, oso beharrezkotzat jotzen da etxebizitza indibidualak eraikitzea eta sarrera independentea izatea, interferentzia-iturriak saihesteko. Kutsadura elektromagnetikoari dagokionez, ezagutzen diren aukera guztiek hormetan pantailak sortzea eskatzen dute eta, horretarako, sareak eta pantaila efektua egiten duten margo espezifikoak erabiltzen dira, kanpoko kutsaduratik babesteko. Etxebizitzaren barruan hari gabeko gailuak erabiltzea erabat baztertzen da eta konexio guztiak kableen bidez egiten dira.

Instalazio elektrikoari dagokionez, EHSa duten pertsonen eragiten dieten eremu elektriko eta/edo magnetikoak ez sortzeko moduan diseinatu behar da. Hauek dira oinarrizko jarraibideak: hartuneak atsedenguneetatik urruntzea, kable txirikordatuak eta pantaila-babeser hornituak erabiltzea, banaketa-kaxek pantaila-babesa izatea, sare ekipotentzial bat ezartzea, lur-konexioak ahalik eta erresistentzia txikiena izatea, kableen trazaduraren diseinua ahalik eta soilena izatea, kableak izar forman jartzea, atsedenguneetarako zirkuitu independente bat ezartzea, gailuak selektiboki deskonektatu ahal izateko... Neurri horiek guztiak ezartzeaz gain, ahalik eta ekipo elektriko gutxien erabili behar dira, edo, bestela, neurri egokiak aplikatu. Eurolarako lauak (lur-hargunerik gabekoak) dituzten gailuak saihestu behar dira, eta, horien ordean, lur-konexioa duten entxufeak erabiltzen dituzten gailuak aukeratu. Normalean erabiltzen diren gailuak elikadura-kable blindatuz hornituko dira.

Laguntza eta erreferentziazko irizpide gisa, SBM 2008 Araua erabiltzen da, Alemaniako Institut für Baubiologie + Ökologie IBN erakundeak argitaratua. Arau horrek sentikortasun-parametro batzuk eta atsedengunetarako erreferentzia-balioak ezartzen ditu, ahalik eta biobizigarritasun-baldintza onenak lortzeko helburuarekin.

06

PARTE HARTZEKO TAILERRA

Proiektuak garatzen jarraitu zuen, azaroaren 4an parte hartzeko online tailer bat eginuz. Aurreko fasean galdetegiari erantzun zioten pertsona guztiei parte hartzea proposatu ondoren, desgaitasun fisikoa zuten 8 pertsonak parte hartu zuten tailerlean.

Bilera telematikoa egin aurretik, parte-hartzaileei honako lan-
eskema hau bidali zitzaien:

1. Tailerraren aurkezpena

Desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala eta bizitza independentea bermatzeko etxebizitzaren diseinuaren inguruan egindako parte-hartze prozesuari buruzko informazioa (proiektuaren arrazoiak, helburuak, jarraitutako metodologia, etab.).

2. Jasotako informazio/proposamenen aurrerapena

Etxebizitzaren gune desberdinen inguruan galdetegiaren bidez lortutako informazio eta ekarpenen laburpena:

- Atarirainoko ibilbidea
 - Ataria
 - Solairu-banatzaila
 - Barne-banatzaila edo hall-a
 - Korridorea
 - Egongela
 - Sukaldea
 - Jangela
 - Gela nagusia
 - Gainontzeko gelak
 - Bainugela
 - Balkoia-terraza
 - Trastelekua
 - Garajea
-

3. Neurriak diseinatzeko parte-hartze dinamika

Etxebizitza irisgarriak diseinatu eta eskuratzeko jarraitu beharreko estrategiei buruz partekatutako azterketa eta ondorioak, ondorengoak bezalako esparruetan:

- Intzidentzia eta aldarrikapen politikoa
 - Laguntzak
 - Neurri juridikoak eta teknikoak
 - Berrikuntza
 - Bestelakoak
-

4. Ondorioak eta tailerraren itxiera

Adierazitako eskemaren arabera, jarraian, tailerretik ateratako ekarpen eta ondorio nagusiak agertzen dira:

ONDORIO OROKORRAK

- Irisgarritasuna gizarteratzeko ezinbesteko faktorea dela egiaztatu da, eta etxebizitza benetan irisgarriak eskuratzeko aukera eduki behar dela; ildo horretan, hasteko igogailuak eduki behar dituzte, ohiko ingurunean bizitzen jarraitzeko baldintza nagusia baita.
- Gremioei prestakuntza ematea beharrezkotzat jotzen da, etxebizitzak eraikitzeke orduan irisgarritasuna kontuan har dadin.
- Babes ofizialeko etxebizitzak ez daude bertan biziko diren pertsonen beharrian guztiei erantzuteko pentsatuta, eta ez dira eraiki aurretik egokitzen bertan biziko den pertsonaren beharretara. Horren ondorioz, obra egin ondoren beharrezkoak diren egokitzapen guztiak egin behar dira eta horrek desgaitasuna duen pertsonari gainkostua eragiten dio.
- Oro har, jendeak ez daki etxebizitza egokituek desgaitasuna duten pertsona esleipendunen beharrian berezietara egokিতuta egon behar dutela. Horregatik, desgaitasuna duten pertsonen eskubide hori dutela jakinarazi beharko litzaieke, eta eraikuntza-enpresei eta gremioei behar bezalako prestakuntza eman beharko litzaieke.
- Etxebizitzaren irisgarritasuna gizarteratze-faktoretzat hartzen da, adibidez: nire lagunaren etxea egokituta ez badago, ezin-go naiz joan.

ERAGINA ETA ALDARRIKAPEN POLITIKOA

- Jende guztiak ez du ezagutzen **elkartuk** etxebizitzaren arloko politketan eragiteko egiten duen lana, beraz, jarduketa horiek desgaitasuna duten pertsona guztiekin partekatu beharko lirateke, hainbat bitartekoren bidez (Elkarte aldizkaria, aldizkari elektronikoa, sare sozialak, etab.). Era berean, komunikazio-kanpainak bultzatu daitezke, baita aurretik egindakoak berreskuratu ere, edo urtean zehar «kausak» sortu, hala nola, gaur egun, martxoaren 8an, azaroaren 25ean edo abenduaren 3an bezala.
- Etxebizitza-eskubideari eta horrek bizimodu independentearen ereduarekin duen loturari buruz egiten ari diren dokumentuei balorazio positiboa eman zaie.
- Eragin-protokolo bat egiteko aukera azter liteke, bai eragin indibidualak (desgaitasun fisikoak duten pertsonen premiak edo bizi ditzaketen zailtasunak jasota), bai orokorrekoak (erakundeen gaineko eragina arauak, plan estrategikoak, etab. egiteko prozesuetan).

LAGUNTZAK

- Ikusi denez, askotan, dauden laguntza ekonomikoak ez dira behar bezala ezagutzen, eta, ondorioz, desgaitasun fisikoak duten pertsonak ez dituzte dagozkien eskubideak baliatzen.
- Etxebizitzen arloko laguntzak, oro har, ulertzeko zailak dira eta horrek laguntzen onuradun izan daitezkeen pertsonak urundu ditzake.
- Zaila da ulertzea erakunde-mailaren arabera banatuta dauden laguntza guztien arteko harremana eta bateragarritasuna.
- Laguntza batzuk udalerrri jakin batzuetan daude, baina ez beste batzuetan.

- Elkartean elkartea buru dela etxebizitzetan irisgarritasuna sustatzeko laguntzei buruzko informazioa laburbildu eta sinplifikatzeko dokumentu bat egiteko ekimenari balorazio positiboa eman zaio.
- Desgaitasuna duten pertsoneri, hainbat bitartekoren bidez, etxebizitzetan irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzeko dauden laguntzen berri ematea garrantzitsutzat jotzen da. Are gehiago, gai horri buruzko ikerketa bat egitea planteatu liteke, duela urte batzuk elkartuk autobusen gaiarekin egin zuen bezala.
- Halaber, laguntzen gaiari buruzko kontzientziazio-kanpainak egin litezke.

LEGEZKO NEURRIAK ETA TEKNIKOAK

- **elkartu** legearekin eta arlo teknikoarekin lotutako gaietan aholkularitza-lan handia egiten ari dela baloratzen da, baina, era berean, bere burua gehiago ezagutarazi beharko lukeela pentsatzen da, batzuetan ez baita desgaitasuna duten pertsona guztiengana iristen.
- Halaber, elkarteak arauak eta plangintzako beste tresna batzuk garatzeko prozesuetan egiten dituen ekarpenak desgaitasuna duten pertsoneri eta gizarte osoari helarazi beharko litzaizkioke, baita desgaitasun fisikoa duten pertsonen premiei irtenbide teknikoak emateko egiten dituen ekimenak ere.
- Eskakizun teknikoek eta lege-arlokoek pertsonalizazio-irizpideetara egokitu-ta egon behar dute, pertsona bakoitzaren premia bereziei erantzun egokia emateko.

BERRIKUNTZA

- Ikusten denez, zenbat eta berrikuntza handiagoa eta laguntza tekniko hobeak izan, orduan eta autonomia handiagoa izango dute pertsonak, eta, ondorioz, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko hirugarren pertsona baten laguntzaren behar txikiagoa izango dute.
- Berrikuntza bultzatu behar da, baina berrikuntza horrek ikuspegi ekonomikotik eskuragarria izan behar du, desgaitasuna duten pertsona guztiek eskuratzeko aukera izan dezaten.
- Horretarako, diseinatzen dutenek desgaitasuna duten pertsonekin harremanetan egon behar dute, haien premiak zuzenean ezagutu ahal izateko.



07

ONDORIOAK

Proiektuari esker, desgaitasuna duten pertsonak beren eskubideetan eta bizi-kalitatean eragiten duten gaitan parte hartzea sustatu da; kasu honetan, etxebizitzaren gaitan, zeina bizimodu independentearen eredu bermatzeko funtsezko faktore bat den.

Prozesuaren bidez berretsi denez, etxebizitzetako gela irisgarritasun-baldintzetan gabezia larriak daude oraindik eta etxebizitza duin, egoki eta irisgarri bat edukitzeko eskubidea bermatzeko zailtasunak daude, aurrerapenak egin diren arren.

Beraz, ezinbestean, etxebizitzaren irisgarritasun unibertsala bermatzeko neurri politiko, legal eta teknikoak bultzatu behar dira, desgaitasuna duten pertsonak beren autonomia pertsonala bermatuta izan dezaten, eta, era berean, bizitza independenteko proiektuak ahalbidetu daitezten.

Bereziki garrantzitsua da –eta prozesuaren bidez egiaztatuta da–, etxebizitzaren diseinuaren arloan berrikuntzari bultzada kualitatiboa ematea, bereziki babes publikoko araubideen pean dauden etxebizitzaren kasuan, desgaitasuna duten pertsonen premia indibidualei erantzun egokiak eta pertsonalizatuak eman ahal izateko. Era berean, berrikuntza-politikek etxebizitza eskuratzeko politiketan isla izan behar dute; hala, testuinguru sozial eta legal berrietarako neurriak diseinatu behar dira, desgaitasuna duten pertsonak etxebizitza duin, egoki eta irisgarria eskuratzeko benetako aukera izatea sustatzeko.

Helburu horiek lortzeko, desgaitasuna duten pertsonak eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzea funtsezkoa da. Horregatik, **elkartuk**, eragiteko eta aldarrikapenak egiteko lanean jarraituko du, etxebizitza-politiketan desgaitasuna duten pertsonen premiak aintzat hartzeko aurrerapausoak emateko helburuarekin, aldi berean, gizarte irisgarriago eta inklusiboago baten esparruan, pertsona guztien aukera-berdintasuna bermatzeko duten ekintza positiboko neurriak hartzearen garrantzia azpimarratuz.



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa